

## Bestelako Xedapenak

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1200

EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 22koa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egin eta ingurumeneko baimen bateratua ematen duena burdina galdatzeko instalazio berriaren proiekturako, Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak Aguraingo udalerrian sustatua.

#### GERTAKARIAK

2008ko apirilaren 24an, Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua emateko eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailearen 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Aguraingo (Araba) udalerrian burdina galdatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Aguraingo Udalak emandako aldeko hirigintza-txostena eta honako agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko oinarriko proiektua eta Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana. Fundiciones Wind Energy Casting II SA.

2008ko ekainaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzak zenbait erakunderi txostena emateko eskatu zien, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanaren zabalasuna eta xehetasun-maila zehazteko. Zehazkiago, honako hauei egin zien kontsulta: Aguraingo Udalar, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidea-tzarako Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Meategien Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eta Ura Euskal Agentziari.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2008ko azaroaren 5ean; espedienteak 2008ko azaroaren 21ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2009ko urtarrila-

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

1200

RESOLUCIÓN de 22 de mayo de 2009, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se formula declaración de impacto ambiental y se concede autorización ambiental integrada del proyecto de nueva instalación de fundición de hierro, promovida por Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. en el término municipal de Salvatierra.

#### ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 24 de abril de 2008, Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada, previa declaración de impacto ambiental, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fundición de hierro en el término municipal de Salvatierra. La solicitud se acompañaba del informe urbanístico favorable del Ayuntamiento de Salvatierra y de la siguiente documentación técnica:

Proyecto básico de solicitud de autorización ambiental integrada y Estudio de Impacto Ambiental. Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A.

Con fecha 30 de junio de 2008, la Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental del Gobierno Vasco solicitó de diferentes organismos que se emitiera informe en orden a determinar la amplitud y el nivel de detalle del Estudio de Impacto Ambiental. En concreto se consulta al Ayuntamiento de Salvatierra, a la Dirección de Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, a la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, a la Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco, a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, a la Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco, a la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y a la Agencia Vasca del Agua.

Con fecha 5 de noviembre de 2008, el Órgano Ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 21 de noviembre de 2008.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 13 de enero de

ren 13an emandako Ebazpen bidez, jendaurrean jarri ziren, 30 egun baliodunen epean, Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak sustatutako proiektua eta proiektu horrek ingurumenean duen eraginari buruzko azterlana, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2009ko urtarrilaren 30ean. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2009ko otsailaren 15ean, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaien.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzak, 2009ko martxoaren 12an, txosten bana eskatu zien Aguraingo Udalari, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Zuzendaritzari, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitateko eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Meategien Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sairi eta Uraren Euskal Agentziari, eta txosten horien emaitzak espedientean jaso dira.

2009ko maiatzaren 8an, sustatzaileak zenbait argibide osagarri aurkeztu zituen, Ingurumen Organoak alde aurretik egindako eskaerari erantzunez, honako proposamen hau lantzeko.

2009ko maiatzaren 12an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako Ebazpen Proposamena gehituz.

2009ko maiatzaren 21ean, Fundiciones Wind Energy Casting II SAk idazki bat bidali zuen, Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzak merkataritza-enpresa horri bidalitako ebazpen-proposamenaren edukia esanbidez onartzeko.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

2009, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. junto con el estudio de impacto ambiental, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco con fecha de 30 de enero de 2009. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 15 de febrero de 2009 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se han presentado alegaciones.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, la Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco solicita el 12 de marzo de 2009 informe al Ayuntamiento de Salvatierra, a la Dirección de Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, a la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, a la Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco, a la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y a la Agencia Vasca del Agua, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 8 de mayo de 2009 el promotor presenta aclaraciones adicionales requeridas previamente por el Órgano Ambiental en orden a elaborar la presente Propuesta.

Con fecha 12 de mayo de 2009, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente se ha puesto a disposición de Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. incorporando la Propuesta de Resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Con fecha 21 de mayo de 2009, Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. remite escrito mediante el que acepta explícitamente el contenido de la propuesta de resolución remitida por la Dirección de Calidad Ambiental a la citada mercantil.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak, hain zuzen ere, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko eremuko jardueren instalazioetan garatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikulua ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplika daitekeen instalazio guztietan araua betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko administrazio-kargak gutxitzearen. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: saneamendu-sistema integralera isurtzea, hondakinak sortzeko baimena, atmosferara isurtzeko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagokion baimenak. Gainera, espedientearen beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorritik.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordeztzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten dena; ez du ordeztzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, hala badagokio, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei dagokienez ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Goian aipatutako aginduak betez, Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el Anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de vertido al sistema integral de saneamiento, a la de producción de residuos, a la de emisiones a la atmósfera y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescrip-

bateratuaren barnean hartu dira Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean horretarako aurreikusitako izapide guztiak, baita Aguraingo Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Mategien Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Uraren Euskal Agentziak emandako txostenak ere. Espedientean jaso da txosten horien guztien emaitza.

Bestalde, Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar dute nahitaz Legearen 1. eranskinean jasota egonik Euskal Autonomia Erkidegoan burutu nahi diren plan eta proiektu publiko zein pribatuak. Prozedura hori ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenarekin amaitzen da, direlako proiektuak gauzatzeko edo, behar denean, baimentzeko, emango den administrazio-ebazpenaren aurretik egingo dena.

Era berean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11.4 artikulua aplikatuz, autonomia erkidegoek ahaleginak egingo dituzte ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran, ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko erkidegoko araudian ageri diren jarduerak edota beste figura batzuk sartzeko, betiere horrelakorik eska badaiteke, eta horretarako eskumena autonomia erkidegoari badagokio.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen aurreikuspenak betez, Ingurumen Organoak neurriak hartu ditu ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-arloko jardunak ingurumeneko baimen bateratuko prozeduraren barruan txertatzeko. Alde horretatik, prozedura horren izapideetan proiektuak izan ditzakeen ondorio guztiak batera aztertu dira, proiektuaren bideragarritasuna zehazteko, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren arauen ikuspegitik eta uztailaren 1eko 16/2002 Legean jasotako ingurumen-aginduen ikuspegitik. Integrazio hori garbi islatzen da ingurumeneko baimen bateratua emateko ebazpen-proposamenaren aurretik proiektuaren gainean egiten den balioespen orokorrean. Proposamenean bezala, ebazpen honetan sartuta dago aipatutako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozesua. Horretarako, proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko adierazpena egiten du bere lehengo atalean, eta, ingurumen-ondorioetarako soilik,

el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Salvatierra, de la Dirección de Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, de la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, de la Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco, de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y de la Agencia Vasca del Agua.

Por otro lado y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, deben someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación de impacto ambiental los planes y proyectos, bien fueran públicos o privados, que encontrándose recogidos en el anexo 1 de la Ley, se pretendan llevar a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procedimiento que culmina con una declaración de impacto ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

En aplicación, asimismo, de lo dispuesto en el artículo 11.4 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, las Comunidades Autónomas dispondrán lo necesario para posibilitar la inclusión en el procedimiento de otorgamiento de la autorización ambiental integrada de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental u otras figuras de evaluación de impacto ambiental previstas en la normativa autonómica, cuando así sea exigible y la competencia para ello sea de la Comunidad Autónoma.

En cumplimiento de las previsiones contempladas en la Ley 16/2002, de 1 de julio, el Órgano Ambiental ha adoptado las medidas encaminadas a una efectiva inclusión de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental en el procedimiento de autorización ambiental integrada. En este sentido, en los trámites del citado procedimiento se ha considerado de forma integrada el conjunto de los posibles impactos derivados del proyecto en orden a determinar la viabilidad del mismo desde la perspectiva de la normativa de evaluación de impacto ambiental y la referida al resto de las prescripciones medioambientales contenidas en la Ley 16/2002, de 1 de julio. Dicha integración encuentra nuevamente su reflejo en la valoración global del proyecto que antecede a la Propuesta de Resolución de otorgamiento de autorización ambiental integrada. La presente Resolución, en la misma forma en que lo hizo la mencionada Propuesta, viene a incorporar el resultado del menta-

aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela aipatzen du; proiektua zein baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, uztailaren 1eko 16/2002 Legea aplikatuz ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileekin bat etorriz.

Azkenik, instalazioak gehenez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak zehazteko, eta, ingurumena oro har ahalik eta gehien babesteko, ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazteko, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokkeen arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry, 2005eko maiatzekoa, Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems, 2001eko abendukoa; eta Reference Document on Best Available Techniques for Emissions from Storage, 2006ko uztailekoa.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Kontuan hartu da organo hau eskumenekoa dela ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egiteko eta ingurumeneko baimen bateratua emateko, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuan ezarritakoa betez.

Honako arau hauek aztertu dira: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko maiatzaren 12an emandako ebazpen-proposamena; Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Erregelamen-

do proceso de evaluación de impacto ambiental a su contenido a través de la formulación, en su apartado Primero, de una declaración de impacto ambiental de carácter favorable que viene a pronunciarse, a los solos efectos ambientales, sobre la viabilidad del proyecto en la ubicación elegida, fijando las condiciones en las que el mismo debe realizarse, condiciones que vienen a formar un todo coherente con las medidas correctoras que deben imponerse al citado proyecto como consecuencia de la concreta aplicación de la Ley 16/2002, de 1 de julio.

Por último, en orden a determinar los valores límite de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido de los siguientes documentos BREF de la Comisión Europea: Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry de mayo de 2005, Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems de diciembre de 2001 y Reference Document on Best Available Techniques for Emissions from Storage de julio de 2006.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió Propuesta de Resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Considerando la competencia de este órgano para la emisión de la declaración de impacto ambiental y la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 12 de mayo de 2009 del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de Septiembre, por el que se aprueba el Reglamen-

dua onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatutako gainerako araudia,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak Aguraingo udalerrian sustatutako burdina galdatzeko instalazio berriaren proiekturako, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldeko adierazpena egitea, Ebazpen honetako Hirugarren atalean ezarritako baldintzei jarraiki.

**Bigarrena.**– Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresari (helbide soziala: Itziar-Debako industrialdea 38., N-I lurzatia, 1. IFK: A-20964987) ingurumeneko baimen bateratua ematea, Aguraingo udalerrian burdina galdatzeko instalazio berria ezartzeko, Ebazpen honen Hirugarren atalean ezarritako baldintzak bete behar dituela aintzat hartuta.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinen 2.4 kategorian («Egunean 20 tona baino gehiago ekoizteko ahalmena duten metal ferrosen galdategiak») sartuta dago.

Fundiciones Wind Energy Casting II SA Galzar SAUI 4 industrialdean kokatuko da, S2 eta S3 lurzatietan, Aguraingo udalerrian.

Fundiciones Wind Energy Casting II SAK tamaina handiko (8-30 Tn-ko pisua) osagai eolikoak galdatzen ditu, burdinurto esferoidala erabiliz. Moldekatzea kimikoa izango da, aminorik eta katalizatzaile sulfonaturik gabeko erretxina furanikoak erabiliz. Urtean batez beste 16.500 Tn ekoiztiko direla aurreikusten da.

Ekoizpenean honako azpiprozesu hauek bereizten dira: argintza, moldekatzea, muntaketa, galdaketa, desmoldekatzea eta harea berreskuratzea, granailaketa, mazarota kentzea eta bizar-kentzea. Hona hemen atal bakoitzaren deskribapena.

Argintza: lerroan zenbait nahasgailu ezarriko dira, harea-nahasketa batez elikatzen direnak (harea zuri berria eta berreskuratutako harea), erretxina furanikoak eta azido sulfonikoan oinarritutako katalizatzaile erantsita. Nahastutako harea ar-kaxetan banatuko da. Fraguatze kimikoaren ostean kaxak desmuntatzen dira, pintatzen dira (oinarrian ura duten pinturak erabiliz) eta arrak prestatzen dira, muntaketara biltzeko.

Moldekatzea: Moldekatze-kaxa metalikoetan egingo da eragiketa hau. Kaxak eredu gainean jartzen

to de Evaluación de Impacto Ambiental, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

**Primero.**– Formular declaración de impacto ambiental, con carácter favorable, del proyecto de nueva instalación de fundición de hierro, promovida por Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. en el término municipal de Salvatierra, con las condiciones establecidas en el apartado Tercero de esta Resolución.

**Segundo.**– Conceder a Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A., con domicilio social en Deba (Polígono Industrial de Itziar-Deba n.º 38, Parcela N-I, 1) y CIF A-20964987, autorización ambiental integrada para la nueva instalación de fundición de hierro en el término municipal de Salvatierra, con las condiciones establecidas en el apartado Tercero de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.4. Fundiciones de metales ferrosos con capacidad de producción de más de 20 toneladas por día del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La empresa Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. se ubicará en el Polígono Industrial de Galzar S.A.U.I. 4, ocupando las parcelas S2 y S3, en el término municipal de Salvatierra.

Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. se dedica a la fundición de componentes eólicos de gran tamaño (entre 8 y 30 Tn de peso) en hierro con grafito esferoidal. El moldeo será químico utilizando resinas furánicas exentas de aminas y catalizadores sulfonados. El promedio de producción se estima en 16.500 Tn al año.

La producción consta de los siguientes subprocesos: machería, moldeo, montaje, fusión, desmoldeo y recuperación de arena, granallado, desmazarotado y rebabado. A continuación se describe brevemente cada uno de los mismos.

Machería: la línea dispondrá de mezcladoras que se alimentan de una mezcla de arena (arena blanca nueva y arena recuperada) y donde se aditivan las resinas furánicas y el catalizador en base ácido sulfónico. La arena mezclada se distribuirá en las cajas de machos. Producido el fraguado químico se desmontan las cajas, se pintan (pinturas en base agua) y se preparan los machos para su incorporación a montaje.

Moldeo: esta operación se realizará en cajas de moldeo metálicas. Las cajas se posicionan sobre los

dira, eta hareak, erretxinek eta katalizatzaileek osutako nahasketa batez elikatzen dira, erresistentzia mekanikoa eta sendotasuna emateko. Harearekin, erretxinarekin eta katalizatzaileekin egindako nahasketa fraguatu ondoren, ereduaren moldeak erauzi eta negatiboa lortzen da. Moldeak, arrak bezalaxe, oinarrian ura duten pintura erregogorrez pintatzen dira.

Pintatutako moldeak eta arrak lehortze-labe batean lehortuko dira.

Muntaketa: muntaketa gauzatzeko, arrak moldekatze-kaxetan sartu eta ixten dira, piezaren barneko konfigurazioa lortzeko. Ondoren, kaxak itxi egiten dira, galda sartzeko ahoak utzita.

Galdaketa: instalazioak maiztasun ertaineko bi indukzio-labe izango ditu, nukleorik gabekoak, 10.000 KW-ko potentzia eta edukiera bateratuko 25 tona izango dituztenak, zirkuitu itxian urarekin hoztuak. Labeek txandaka jardungo dute, gaueko ordutegian. Labeetatik aurrez prestatutako zalietan iraultzen da isurketa, eta zubi-garabien bidez muntatutako ereduak dauden zuloetara eramaten dira. Zaliak aurreberotu eta bero mantentzen dira, gas naturaleko erregailuen bitartez.

Desmoldekatzea eta harea berreskuratzea: Piezak galdatu eta hoztu ondoren, desmoldekatu egiten dira, parrilla dardarkari baten bitartez. Moldeak haustean sortzen den harea xehatu egiten da, eta harea berreskuratzeke instalaziora eramaten da. Desmoldekatzeke gailuaren azpitik deskargatzeko tobera jartzen da, altzairuzko xafazkoa eta kargatzeko 100 Tn-ko edukiera duena, molde batetik deskargatutako hasierako harea-astindua ahalbidetzeko. Desmoldekatzeke eremuan kokatutako instalazio batean berreskuratzen da harea, eta, bereizle magnetiko batetik igaro ondoren, silotan biltegitratzen da. Jarraian, garraio pneumatikoren bidez, arrak eta moldeak biltegitratzeke siloetara eramaten da.

Granailatzea: Desmoldekatu ostean, harea ezabatzen da granailaketaren bitartez, eta horrela galdatutako piezetako ertzak eta ertz zorrotzak ezabatzen dira.

Mazarota- eta bizar-kentzea: Mazarota kentzeko, kanoi pneumatiko batez kolpekatzen da arbastatu aurretik. Mazarotak galdategiko karga-eremura itzuliko dira, eta berriz ere erabiliko dira ekoizpen-prozesuan. Piezen bizar-kentzerako, elementu osagarriak zizelkatu eta harriz lantzen dira, eta molde eta arren arteko lotuneei akabera ematen zaie, lotune horien ingurua eskatutako moldera eta neurrietara egoki dadin. Instalazioak pieza txikietarako 5 kabina eta pieza handietarako 3 kabina izango ditu.

Atmosferara egindako isurketa gehienak honako instalazio hauetan sortzen dira: galdaketa-labeak, arren nahasgailua, desmoldekatzeke makina, mol-

delos y se alimentan de una mezcla de arena, resinas y catalizadores con el fin de dar resistencia mecánica y solidez. Una vez fraguada la mezcla de arena con la resina y los catalizadores, se extrae el molde del modelo, obteniendo el negativo. Los moldes, al igual que los machos, son pintados con pintura refractaria en base agua.

Para el secado de los moldes y machos pintados se dispondrá de un horno de secado.

Montaje: el montaje consiste en la inserción de machos en las cajas de moldeo y en el cierre de los mismos, con el objeto de obtener la configuración interna de la pieza. Posteriormente se procede al cerrado de las cajas dejando las correspondientes bocas de entrada de colada.

Fusión: la instalación va a disponer de dos hornos de inducción de media frecuencia sin núcleo de 10.000 KW y 25 toneladas de capacidad unitaria, refrigerados por agua en circuito cerrado. El funcionamiento de los hornos es alternativo y en horario nocturno. De los hornos se vuelca la colada en cucharas previamente preparadas, que son trasladadas mediante grúas puente hasta las camas de colada donde esperan los modelos ya montados. Las cucharas se precalientan y mantienen atemperadas por medio de quemadores de gas natural.

Desmoldeo y recuperación de arena: Fundidas las piezas y enfriadas, se procede a su desmoldeo mediante una parrilla vibrante. La arena procedente de la rotura de moldes se desmenuza y pasa a la instalación de recuperación de arena. Debajo de la desmoldeadora se dispone una tolva de descarga en chapa de acero de 100 Tn de volumen de carga, para permitir la sacudida de arena inicial descargada de un molde. La arena es recuperada en una instalación situada en la zona de desmoldeo y tras pasar por un separador magnético se almacena en silos y posteriormente es enviada mediante transporte neumático a los silos de almacenamiento de machería y moldeo.

Granallado: Tras el desmoldeo, se procede a la eliminación de arena mediante un granallado, eliminando así las aristas y cantos vivos de las piezas fundidas.

Desmazarotado y rebabado: La mazarota se elimina mediante el golpeo de un cañón neumático antes del desbaste. Las mazarotas volverán a la zona de carga de la planta de fundición reutilizándose de nuevo en el proceso productivo. El rebabado de las piezas consiste en el cincelado y amolado de los elementos auxiliares y el pulido de las zonas de unión de moldes y machos para conseguir que el contorno de éstas se acomode a la forma y a las dimensiones exigidas. La instalación dispondrá de 5 cabinas para piezas pequeñas y 3 cabinas para piezas grandes.

Las principales instalaciones en las que se generan emisiones atmosféricas son las siguientes: hornos fusores, mezcladora de machería, desmoldeadora, mez-

dekatzeko nahasgailua, granailatzeko makina, harea berreskuratzeko makina, bizar-kentzeko kabinak eta moldeak eta arrak lehortzeko labea. Isurtzeko foku guztiek, molde eta arrak lehortzeko labeari lotutako fokuak izan ezik, arazketa-sistemak dituzte (mahuka-iragazkia).

Bestetik, jardueraren ondorioz hondakin-ur industrialak sortzen dira, hozte-sistemetatik eta konpresoreetatik eratorriak, baita hondakin-ur sanitarioak ere, komunetatik eta aldageletatik eratorritzen direnak. Korrante horiek udalaren saneamendu-sarera isurtzen dira.

Besteak beste, proiektuak honako neurri hauek biltzen ditu, teknika onenen erabileratzat jo daitezkeenak: txatarra-parkea iragazgaitzea; lehengaiak gune konfinatu batean biltegitratzea; txatarra garbiak maiztasun ertaineko indukzio-labeetan kargatzea; galdaketan, desmoldekatzean eta harea-eragiketetan isuritakoa xurgatu eta araztea; aglomeratzaile- eta erretxina-kontsumoa minimizatzekeo neurriak; harearen % 95 berritzea; harea mekanikoki berritzea; granailatzeko instalazioa xurgatu eta araztea; isurketa difusioak murriztekeo neurriak; zarata murriztekeo neurriak; eta hondakin-urak bereiztekeo sareak; besteak beste.

**Hirugarrena.**– Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak Aguraingo udalerrian burdina galdatzeko instalazio berria ezartzeko sustatutako proiektua gauzatzeko, honako baldintza eta betekizun hauek agintzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren datuetan aldaketarik balego, Fundiciones Wind Energy Casting II SA enpresak aldaketa horien berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.8 artikulua aipatzen duen epea bi urtekoa izango da, Ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita. Ondorio horietarako, sustatzaileak proiektua gauzatzeko hasteko aurreikusitako data jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, gutxienez hilabete lehenago.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako atal hauetan ezarritakoari jarraituz:

Proiektua burutzeko aurreikusitako aurrekontua eta baldintza-agiria ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa burutzeko obra-unitateekin eta prezioekin osatu beharko dira.

cladora de moldeo, granalladora, recuperadora de arena, cabinas de rebaba y horno de secado de moldes y machos. Todos los focos de emisión, excepto el foco asociado al horno de secado de moldes y machos, disponen de sistemas de depuración (filtro de mangas).

Por otro lado, la actividad genera vertido de aguas residuales industriales (procedentes de los sistemas de refrigeración y de los compresores) y aguas residuales sanitarias (de los aseos y vestuarios). Dichas corrientes son vertidas a la red municipal de saneamiento.

El proyecto incorpora, entre otras, las siguientes medidas que pueden considerarse mejores técnicas disponibles (MTDs): impermeabilización del parque de chatarras, almacenamiento de materias primas confinado, carga de chatarras limpias en los hornos de inducción de media frecuencia, aspiración y depuración de emisiones en la fusión, desmoldeo y arenaría, medidas de minimización del consumo de aglomerante y resina, regeneración de arena en un 95%, regeneración mecánica de arena, aspiración y depuración en la instalación de granallado, medidas para la reducción de las emisiones difusas, medidas de reducción del ruido y redes separativas de las aguas residuales, entre otras.

**Tercero.**– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la ejecución del proyecto de nueva instalación de fundición de hierro, promovido por Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. en el término municipal de Salvatierra.

A) Fundiciones Wind Energy Casting II, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) El plazo al que se refiere el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, será de dos años, a contar desde la notificación de la presente Resolución. A estos efectos, el promotor deberá comunicar a la Viceconsejería de Medio Ambiente, al menos con un mes de antelación, la fecha prevista para el inicio de la ejecución del proyecto.

C) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes.

El presupuesto y el pliego de condiciones previstos para la ejecución del proyecto deberán completarse con las unidades de obra y precios relativos a la ejecución de las medidas protectoras y correctoras y del programa de vigilancia ambiental establecidos mediante la presente Resolución.



c.1.– Instalazioa eraikitzeke baldintza orokorrak.

c.1.1.– Jardun-eremua mugatzea.

a) Instalazioa eraikitzearekin lotutako jardun guztiak, hala nola makina-parkea eta obra-hondakinak aldi baterako metatu eta biltegitzeko guneak, proiektuaren lurzatiaren barruan kokatuko dira.

b) Eremu horretatik kanpo ustekabeko eraginak sortuz gero, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, aurrez ebazpen honen c.1.9 atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

c) Makina-parkea eta obra-hondakinak aldi baterako metatu eta biltegitzeko gunea kontratistak egokitu beharko ditu, garatu nahi diren jardueren ingurumenean sor ditzaketan eraginak gutxitzearren.

d) Gune horien mugak eta ezaugarriak obra-zuzendaritzak onartu beharko ditu, aurrez ebazpen honen c.1.9 atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

c.1.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

a) Eraikuntza-fasea, drainatze-sarera isuritako ale xeheak minimizatuz egin beharko da. Horretarako, ura bideratzeko gailuak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egikarituko dira, horietan obren ondoriozko ur kutsatuak biltzeko.

b) Obraren makina-parkera bideratutako azalera eta haren mantentze-gunea drainatze naturaleko saretik isolatuko dira. Zola iragazgaitza eta effluenteak biltzeko sistema izango dituzte, lurzorua eta ura olio eta erregaien bidez kutsa daitezen saihesteko. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ez dira baimenduko adierazitako guneetatik kanpo.

c.1.3.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko gainerako guneak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek eragindako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Pistak eta aldi baterako soil egongo diren eremuak ureztatzeko sistema bat egongo da.

b) Obraguneetako irteeran ibilgailuak garbitzeko gailuak ezarriko dira. Gailu horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta bildutako uren kudeaketa, ebazpen honen c.1.10 puntuak aipatzen dituen agirietan jaso beharko dira.

c.1.4.– Zaratak, dardarak eta horien eraginak gutxitzeko neurriak.

c.1.– Condiciones generales de construcción de la instalación.

c.1.1.– Delimitación del ámbito de actuación.

a) Todas las actuaciones relacionadas con la construcción de la planta, tales como el parque de maquinaria y las zonas destinadas para acopio de materiales y almacenamiento provisional de residuos de obra, se ubicarán en el interior de la parcela del proyecto.

b) En caso de afecciones accidentales fuera del ámbito señalado, serán aplicadas las medidas correctoras y de restitución adecuadas, previo informe de la asesoría ambiental señalada en el apartado c.1.9 de esta Resolución.

c) El parque de maquinaria y el área de almacenamiento temporal de materiales de obra deberán ser acondicionados por el contratista con objeto de minimizar los impactos ambientales derivados de las distintas actividades que se pretenden desarrollar.

d) Tanto la delimitación como las características de estas áreas deberán ser aprobadas por la Dirección de Obra, previo informe de la asesoría ambiental mencionada en el apartado c.1.9 de esta Resolución.

c.1.2.– dMedidas destinadas a la protección de las aguas y del suelo.

a) La fase de construcción deberá realizarse minimizando la emisión de finos a la red de drenaje natural. Para ello se proyectarán y ejecutarán dispositivos de conducción de aguas y sistemas de retención de sólidos en suspensión, de forma que se recojan en ellos las aguas contaminadas por efecto de las obras.

b) La superficie destinada a parque de maquinaria de obra y la zona de mantenimiento de la misma se aislarán de la red de drenaje natural. Dispondrán de solera impermeable y de un sistema de recogida de effluentes para evitar la contaminación del suelo y de las aguas por acción de aceites y combustibles. No se permitirá la carga y descarga de combustible, cambios de aceite y las actividades propias de taller en zonas distintas a la señalada.

c.1.3.– Medidas destinadas a aminorar las emisiones de polvo.

a) Durante el tiempo que dure la obra se llevará a cabo un control estricto de las labores de limpieza de viales y otras zonas de paso de vehículos, tanto en el entorno afectado por las obras como en las áreas de acceso a éstas. Se contará con un sistema para riego de pistas y superficies transitoriamente desnudas.

b) A la salida de las zonas de obra se dispondrá de dispositivos de limpieza de vehículos. Las características de dichos dispositivos, así como su localización precisa, y la gestión de las aguas recogidas deberán especificarse en la documentación a la que se refiere el apartado c.1.10 de esta Resolución.

c.1.4.– Medidas destinadas a aminorar los ruidos, las vibraciones y sus efectos.

a) Eraikitze-fasean, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko agirietan deskribatutako jarraibide egoiak aplikatuko dira, obra-makinen mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

b) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

#### c.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obretan sortutako hondakinak, eta obra-lekuak, enbalajeak, erreuseko lehengaiak eta garbiketakanpaina prestatzeko eragiketetan sortutako hondakinak, hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzeokak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obran sortutako hondakin guztiak, horien balioztatzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balioztatzaile baimendu bati igorri beharko zaizkio. Teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenikuspegitik balioztatzea bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik ezabatu ahal izango dira hondakinak.

c) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen otsailaren 1eko Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko da aintzat. Horren haritik, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko azterlan bat bildu beharko da eraikuntza-proiektura, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretu horren 4.1.a) artikuluan ezarritako edukiarekin.

d) Zabortegira eramateko hondakinak, hondakinak zabortegian uztea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren arabera eta 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiaren arabera kudeatuko dira. Erabaki honen bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluekin eta II. eranskinarekin bat etorritz.

e) Betelanetarako erabiliko diren hondakinak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren (hondakinak zabortegian biltegitratuta ezabatzeari eta betelanak egiteari buruzkoa) arabera kudeatuko dira.

a) Durante la fase de construcción deberá aplicarse el conjunto de buenas prácticas de obra descritas en el estudio de impacto ambiental, en cuanto al mantenimiento general de maquinaria de obra y reducción en origen del ruido.

b) De acuerdo con lo previsto en el artículo 22 del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, la maquinaria utilizada en la fase de obras debe ajustarse a las prescripciones establecidas en la legislación vigente referente a emisiones sonoras de maquinaria de uso al aire libre, y en particular, cuando les sea de aplicación, a lo establecido en el Real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre, y en las normas complementarias.

c.1.5.– Medidas destinadas a la gestión de residuos.

a) Los diferentes residuos generados durante las obras, los resultantes de las operaciones de preparación de los diferentes tajos, embalajes, materias primas de rechazo y de la campaña de limpieza se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas que les sean de aplicación.

b) Todos los residuos generados durante las obras cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado. Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o ambientalmente viable.

c) Los residuos de construcción y demolición se gestionarán de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición. A este respecto, el proyecto constructivo deberá incorporar un estudio de gestión de residuos de construcción y demolición con el contenido establecido en el artículo 4.1.a) del citado Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero.

